


Uretatarrak, probia zainetan

URETA EDO UDAETA. ZIHARREKO BUELTAREN GAIN-GAIÑETXUAN BASARRI BAT, ORMAETXEA ABIZEN BEREKO HIRU GIZONEN JAIXOTETXIA. JOSE JOAKIN AITXITXA, EUSEBIO AITXA ETA JESUS SEMIA. ENTZUTE HAUNDIKO IDI-PROBALARIXAK. HIRU BELAUNALDI, PLAZA ETA ENKATXUETAN URETA IZENAREN OIÑATZA LAGATAKUAK.

Edurra ein dau azken egunotan eta gehixao eitzekeo ustia daka. Kotxia hartu eta Uretako bidia hartzen dot. Harek gora orduko pendizeak, itzelak benetan! Jesus eta famelixiak ataira urtetzen dostie. Ezkatzian be-

hekosua; estimau hartzen da kanpoko hotzari aurre eitzekeo. Kafitesnia ia hartuko dodan? Zelan esan ezetz etxekeo behixan esniakin prestatuko nata eta guzti horri! Danerako astixa dakagu, luze jua da gauzia eta nirekin batera etxekeuak dakaraz aitzari gal-

Eusebio Ormaetxea, aitxa. Idixen aurrian itxaurren eitzen Ermuko Probalekuan 1945ian



derak eitzen, jakinguran.

Grabagaillu batek sarritxan atzera botatzen dau jendia, Jesus ez. Kontularixa da. Bere 78 urtetan bizi eta ikusitxako gauza asko ditxu buruan gordeta, fetxa eta datu kontuetan atzian lagata danak eta itxaurren eñaz idi bikotiak zuzentzen egotiak proba munduaren aparteko ezaguperia emon dotsa. *"Hasi Oiartzunen eta Karranzaraiñok, probaleku danetan egondakua naz ikusten. Bitxorixa partian beste bost lekutan be bai"*, gogoratzen dau Jesusek. Ume-umetatik ezagutu dau probarako joeria eurenian, *"afeziñua beti euki dot nik"*. Oñ ez dake idirik, baiña kortan ganau buru banaka batzuk eukitxa eusten dotsa idi faltiorri. Probetan buru-belarri ebillen sasoiari makiñatxo manta eta sari irabazitxakua da. Urdulizen Bizkaiko Txapelduna etarata dago eta "Corte Ingles" Saria-ren 1976ko lelengo ediziñuan irabazlia bera izan zan.

Jose Joakin aitxitxa gizon haundixa zan, 1,99 m. neur-tzen zitxuan. Idixak hartu eta Somorrostroko minetara jua-

ten zan, bizimodua etartzera; astebetian, goizetik eta gabea biharra eñ eta hurrengo astia etxian eitzen eban. Proba mundua gustoko ebanetz, Tolosako puntarainok juaten zan oiñazian Elgeta eta Bergaratik itzain (idizain), karretero modura idi barik jokatzer. Eusebio honen semiak Txantxi-ku tabernia dauan lekuan zerrra txiki bat ekan, egurra eta egur-ikatzaren salmentiak. Astelehenero gero, proba; gehixen bat Durangaldeko enkatxuetan hartu eban parte. Probia luzia izaten zan, ordu betekua; gaur egun erdira etorritxa dago. Sasoi baten idixak korta guztixetan euazen eta egunero eitzen ziran apro-bak, ze basora edo solora etaratzan ziran biharrera. Traktora sartu ziranian, idixok baztartuz jua ziran. Gaur egunian dagozenak idi jabiak kapritxora dakez, ondo zainduta eta beste zeregiñik barik probarako pretauta. *"Gehixenak dake errobera haundi bat etxe inguruan; kargia ipiñi hari eta haxe ebatten dabe atzera eta aurrera, propio eindako enkatxuan, karrejuan"*, argi-



Jesus Ormaetxea, semia

komunitateak
asegurua

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

MUGA

KALORIK

San Pelayo 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

IAKADEMIA

ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefona (943) 17 90 38

IZOTZ KONPLATUAK

Ermuko Merkatura,
54 eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkatura
943 77 05 98

tzen dosku Jesusek. Idixak balixo itzela daka gaur: "oiñ 60 urte 2.000 pzta. balixo balebana idi batek, gaur bi edo hiru milloiren bueltan dabil", kalkulatzeko dau..

Posturia tarteko

Bizkaiko Probalekurik zaharrena da Ermukua, "nik be-



Jose Joakin Ormaetxea, aitzitza

ti entzun dot hori eta gaztia nintzala astelehen guztixetan jokatzen zan". Eta tartian dirua beti "dirurik ez balego, zer jokatu eta korredorerik ez balegoz, akabo probial!". Saltsia, posturia bihar da "jokua benetakua bada, diru dexente badago jokuan haretzek ekartzen dau jenderik gehixen", gehitzen dosku gure berrie-moilliak.

Indar gehixao euki deixan, ganauari botikak emotia galazota dago eta proba danen kontrola eruaten da. Esate baterako, jaialdi baten 6 idik jokatzen badabe, zozketau eta idi bati eitxen jakoz analisisak. Bartzelonara bialdu eta positibo emon ezkerro, 6 hillabeteko plazaratu eziñeko zigorra eta multa gogorra daka jabiak.

Idixei aurrera eiti eragitxeko berbia? "estu dabillenian, klase danak; aida! normalian" eta geratu eragitxeko? "ez da ezer esateko premiñarik egoten. Geratu! Atzeko harrixak geratu eragitxen dotse!", diñosku barrezka Jesusek. Idi batek egunero lau bat kilo baba baltz eta sahixa jaten dau. Probarako bere sasoirik onena sei urtetik hamar bat urtera bitartekua izaten da; gaztiegiak ez dira komeni. Peroztu ezkerro, nork sosegau buztarrixan? Mantsuak izaten dira generalmentian, baiña tartian okerrak

"untza luze eta karga haundixekin, idixa apurtu eitxen da"

be egoten dira. Buztarrixan alkar lotzeko euki arren, batek bestiak baiño gehixao tiratzia eta buztarrixan erdibitzia be suertau leike, "okerkerixak eitxen badakixez, eskillaretan gora eta... Publikua estu hartzen dabe sarritxan", esaten dosku Jesusek.

Harri eta eguraldixaren zerikusixa

Idixak baiña ez dira dana, ze harri ebalten dan be asko esan gura dau "harri batetik bestera alde haundixa dago. Kareatxa izaten da gehixenguetan, baiña batzuk astunauak izaten dira. Base, behe haundixa badaka, nekezago tatarrasten da enkatxuan, probalekuan. Ligerrago ibilli daitezen, eitxen dotsie ertzetatik jan", diñosku Jesusek. Pixuan be gauzak asko aldatu dira; hiru milla killoko harritzarrak mobidu bihar eben modura, oin bi millara ez dira ailletgaten.

Harritzekua bada be, eguraldixak bere zer esana daka: eurixa eta umeltasuna ez dira onak; izotza eta hegoaziakin,

ostera, harrixa soltiago dabil. Horregaitzik probaleku zaratuak gustatzen jakoz Uretari, denpora bardiñian untza gehixao eitxeko aukeria emoten dabezalako eta kanpokuetan gora-behera gehixao egoten diralako. Untza kontua sasoi batetik hona be aldatuta dago; 28 metroko luzeeratik plaza asko 25-26 metrora etorritxa dagoz eta bere ustez, "arrazoia dake probalarixak, untza luze eta karga haundixekin idixa apurtu eitxen dalako".

Jesus Ormaetxea Aitxixo ondoko Ureta basarrixan bizi da, baiña ermuarrok plaza erdixan parau eta gorutz begiratu ezkerro edozein momentutan ikusteko aukeria dakagu. Ez, ez dakagu bere etxeko ataitik agur eitxen, ez. Ermuko Probalekua zanan onduan (gaur taxixen paradia) eta etxerik luzienaren horman, graffitti baten margoztuta dago buztartutako idi bikote bat bere itzaiñekin. Euretako bat Jesus. Uretatar bat nun hobeto Probalekua nun egon zan akordau eragitxen baiño?

Estibalitz González

KUS KUS
kafe antzokia

Ermuko leku aproposena

Komentukua z/g

Eguneroko zerbitzua:
ERMUA, EIBAR, MALLABIA,
ZALDIBAR, BERRIZ, BILBO

Zama guztientzako eskualdeko zerbitzua
ERANDIO GARRAIOAK

Bulegoa: Zeharkalea, 27 • (943) 17 03 14 •
ERMUA

TXALAPARTA
TABERNA

Ezagutzen gaituzu
Badakizu non gaituzun

943172665 ERMUA

BARRIO GROS Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona